



ENTITATEAREN ZIURTAGIRIRAKO BERARIAZKO DOKUMENTAZIO

Erreferentzia: IZENPE-Doc. Entidad
Bertsio zkia.: 4.1
Data: 2007ko urriaren 16a

© IZENPE 2007

Dokumentu hau IZENPErena da, kopiarik egitekotan, osorik kopiatu daiteke soilik.

■ Beato Tomás de Zumárraga
71 - 1ª Planta
01008
Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.com
info@izenpe.com
Tel.: 945 017 490



1 Sarrera

Dokumentu honen izena *Entitatearen ziurtagirirako berariazko dokumentazioa* da, eta Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SA enpresak idatzi du (aurrerantzean IZENPE).

Dokumentu honen helburua da *IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* herritarren ziurtagirien inguruan modu orokorrean definitutakoa zehaztu eta osatzea.

Dokumentazio honek berariaz arautzen ditu *Ziurtapen Praktiken Deklarazioa* dokumentuak *Entitatearen ziurtagirirako berariazko dokumentazioa* deritzon dokumentu honi bidalitakoa.

1.1 Aurkezpena

IZENPEk jaulkitzen duen Entitatearen ziurtagiria Ziurtapen Digitaleko Zerbitzuen barnean sartzen da. Aipatu zerbitzuak jendearentzako jaulkitzen dituen ziurtagiriei esker, ziurtagirien jabeek harreman telematikoak izan ditzakete entitate publiko erabiltzaileekin eta, oro har, erakunde publiko eta pribatuekin, baldin eta entitate horiek –IZENPErekin adostutako hitzarmenaren edo kontratuaren bidez edo beste bitartekoren baten bidez– horiek erabiltzea onartu badute. Erakunde pribatuekin adostutako hitzarmen edo kontratuek edo aipatutako ziurtagiriak onartzeko erabilitako tresnek definituko dituzte ziurtagiriak erabiltzeko eremuak, betiere zerbitzu publikoekin izango dutenak lotura.

Identitatea eta ziurtagirian jaso beharreko informazio guztia Erregistro Entitate batek egiaztatu behar ditu nahitaez. Ziurtagirien erregistro-entitate gisa egin beharreko jarduerak, berriz, IZENPEk nahiz IZENPErekin hitzarmena harpidetu duten Entitate Erabiltzaileek egin ahal izango dituzte.

1.1.1 Ziurtagiriaren deskribapena

Entitatearen ziurtagiria sinadura elektronikoko ziurtagiri bat da. Izatez, sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen 7., 8., 11., 12., 13., 18. eta 20. artikuluetan ezartzen denaren arabera legez onartzen den ziurtagiria da.

Ziurtagiri hori txartel kriptografikoan eta software-euskarrian jaulkitzen da.

Sinadura sortzeko datuak zaintzeaz arduratzen den eskatzailea izango da gakoan edukitzailea eta identitatea ziurtagiri elektronikokoan bertan adieraziko da. Sinadura elektronikoa erabiliz egindako ekintzak entitateak berak egindakotzat joko dira.



1.2 Identifikazioa

Erakundearen ziurtagiria identifikatu ahal izateko, IZENPEk objektu-identifikatzaile (OID) bat esleitzen dio.

ZIURTAGIRIA	OID
Entitatearen ziurtagiria (txartel kriptografikoa)	1.3.6.1.4.1.14777.2.7
Entitatearen ziurtagiria (software-euskarria)	1.3.6.1.4.1.14777.2.8

Onartu bezala jaulkitzen diren ziurtagiriek honako objektu-identifikatzaile (OID) hau izaten dute gehigarri gisara, Telekomunikazioko Arauen Europako Institutuak TS 101 862ren bidez ziurtagiri onartuen profiei buruz zehaztutakoarekin bat etorriz: 0.4.0.1862.1.1.

1.3 Komunitatea eta aplikagarritasuna

1.3.1 Ziurtagirien erabiltzaileak

Entitatearen ziurtagiriaren erabiltzaile diren azken entitateak ziurtagiri digitalak jaulki, kudeatu eta erabiltzeko zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona eta erakundeak dira.

Honako entitate hauek izango dira entitate erabiltzaileen ziurtagiri-sistemaren azken entitateak:

1. Ziurtagirien eskatzaileak
2. Ziurtagiriaren sinatzailea
3. Ziurtagirien harpidedunak
4. Gakoen edukitzaileak
5. Ziurtagirietan konfiantza duten hirugarrenak

1.3.1.1 Ziurtagirien eskatzaileak

Entitatearen ziurtagiria pertsona batek eskatu behar du, haren izenean edo erakunderen batenean.

Hauek izan daitezke eskatzaileak:

1. Ziurtagiriaren harpidedun izan behar duena



2. Harpidedun izan behar duenak baimendutako norbait
3. Erregistro Entitateak baimendutako norbait
4. Ziurtapen Zerbitzuen Egileak baimendutako pertsona bat

1.3.1.2 Sinatzailea

Ziurtagirian identifikatutako erakundea da sinatzailea.

1.3.1.3 Ziurtagirien harpidedunak

Ziurtagirian identifikatutako pertsona juridikoa da harpideduna.

1.3.1.4 Gakoen edukitzaileak

Gakoen edukitzaileak sinadura digitaleko gakoen zaintza eta ardura duten pertsona fisikoak dira.

1.3.2 Zeri aplikatu

1.3.2.1 Ziurtagirien erabilera-esparrua

Entitatearen ziurtagiriak entitate publiko erabiltzaileekiko harremanetan erabiliko dituzte harpidedunek, baita ziurtagiri horren erabilera onartu duten erakunde publiko eta pribatuekiko harremanetan ere.

Erakunde pribatuekin harpidetutako hitzarmenek edo kontratuek, edo erakunde horiek erreferentziazko ziurtagirien erabilera onartzen duten tresnek, definituko dute zer esparrutan erabiliko den ziurtagiria –nolanahi ere, zerbitzu publikoekin lotutako esparruak izango dira.

1.4 Disposiciones generales

1.4.1 Obligaciones de identificación

IZENPE comprueba en los registros correspondientes, por si misma o por medio de las Entidades Usuarias con las que suscriba el correspondiente convenio, la identidad y cualesquiera otras circunstancias personales de los solicitantes, suscriptores y poseedores de claves de los certificados, relevantes para el fin propio de éstos.

Asimismo comprueba que el poseedor de claves se encuentra debidamente autorizado por el suscriptor.



1.4.2 Obligaciones del suscriptor del certificado

En el supuesto del Certificado de Entidad, son obligaciones del solicitante las recogidas en el apartado 2.1.5 de la Declaración de Prácticas de Certificación, salvo las establecidas en las letras a), b), y j).

1.4.3 Responsabilidad civil del suscriptor de certificado

Respecto a las obligaciones inherentes a la condición de suscriptor, tanto el suscriptor como el poseedor de claves tienen la carga de solicitar la revocación del certificado, en los términos previstos en la Declaración de Prácticas de Certificación.



2 Xedapen orokorrak

2.1 Identifikazio-betebeharrak

IZENPEk –berez edo berarekin hitzarmenak izenpetu dituzten Entitate Erabiltzaileen bidez– egiaztatzen ditu dagozkien erregistroetan, eskatzaileen, harpidedunen eta ziurtagiriaren gakoaren edukitzaileen nortasuna eta beste zeinahi datu pertsonal, ziurtagiriaren xedeetarako garrantzizko izan daitezkeenak betiere.

Modu berean, egiaztatu egiten du gakoaren edukitzaileak harpidedunaren bidezko baimena duen.

2.1.1 Ziurtagiri-harpidedunaren betebeharrak

Entitatearen ziurtagiriaren kasuan, ziurtagiri-harpidedunak Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren 2.1.4. puntuan aditzera ematen diren betebeharrak bete beharko ditu, a),b), eta j) letretan ezartzen direnak izan ezik.

2.1.2 Ziurtagiri-harpidedunaren erantzukizun zibila

Harpidedun izateari lotuta doazen betebeharrei dagokienez, bai harpidedunak bai gakoaren edukitzaileak daukate ziurtagiria baliogabetzeko eskaera egiteko erantzukizuna, Ziurtapen Praktiken Deklarazioak aurreikusten duenaren arabera.



3 Identifikazioa eta kautotzea

3.1 Hasierako erregistroa

3.1.1 Izen motak

Entitatearen ziurtagiriaren Subject Name eremuko izen bereizgarria honakoa da: erakundearen legezko izena edo erakunde horren sailaren edo unitatearen izena.

3.1.1.1 Subject (2003ko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen 11.2. artikuluko c) letraren baldintza)

Entitatearen ziurtagiriaren subject eremuko izen bereizgarria osatzen duten ezaugarriak ziurtagiriaren profilaren atalean bildutakoak dira.

3.1.1.2 Izenen esanahia

Ez da goitizenik erabili behar.

Entitatearen ziurtagiriaren kasuan, harpidedun gisa pertsona juridiko bat duten ziurtagirietako gakoan edukitzailearen izena edukitzailearen izen-abizenek eta haren NANaren/Pasaportearen edo AIZren zenbakiak osatzen dute.

3.1.1.3 Izenen gaineko auziak konpontzea

Entitatearen ziurtagiriaren kasuan, honela konpontzen dira benetako izenaz identifikatuta ageri diren gakoan edukitzaileen izenen gaineko auziak: harpidedunaren IFZren zenbakia (edo harpidedunak esleitutako beste identifikatzailearen bat) jartzen da ziurtagiriaren izen bereizgarrian, aurreko atalean ezarri denaren arabera.

3.1.2 Erakunde baten nortasuna kautotzea

Entitatearen ziurtagiriak jaulkitzeko, Erregistro Entitateek ondorengoak egiaztatuko dituzte:

- Ziurtagiri horietako entitate-eraketa kreditatzen duten dokumentuak.
- Ziurtagiri horiek eskatzen dituzten pertsonen nortasuna, (3.1.9 *Pertsona fisiko baten nortasuna kautotzea* atalak dioenari jarraituz).
- Hala behar izanez gero, dagokien erregistro publikoan inskribatuta dauden ere egiaztatzen da.

Zehazki, Erregistro Entitateak egiaztatu egingo du eskatzaileak frogagiri gisa bidalitako dokumentazioa, honako alderdi hauei dagokienez:

- a. Erakundearen izen legal osoa
-



- b. Erakundearen egoera legala
- c. Identifikazio Fiskaleko Zenbakia
- d. Erregistroko identifikazio-datuak, hala balegokio.

Eratzeari eta nortasun juridikoari buruzko datuak egiaztatzeko, beharrezkoak diren kontsultak egingo dira Erregistro Publikoetan, baldin eta nahitaez inskribatu beharreko datuak badira.

Erregistro Entitateak idatzirik utzi behar ditu burutzen dituen egiaztapenak.

3.1.3 Pertsona fisiko baten nortasuna kautotzea

3.1.3.1 Identifikatu beharrekoak

Entitatearen ziurtagiriaren eskatzailea identifikatuko du IZENPEK.

3.1.3.2 Aurkeztu behar diren identifikazio-elementuak

Eskatzailearen nortasuna ziurtatzeko, honako dokumentazioa eskatuko da:

- a. NANA edo pasaporte, estatuko herritarra bada.
- b. Atzerriko herritarra bada:
 - I. Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomiko Estatuetakoa herritarren kasuan, Atzerritarren Nortasun Zenbakia eta bere nortasuna egiaztatzeko indarrean dagoen nortasun-agiria erabiliko da.
 - II. Europar Batasunekoak ez diren atzerritarren kasuan, egoitza-txartela eskatu ahal izango da.
- c. Administrazioarek, legezko ordezkariari edo ziurtagiria eskatzeko behar besteko ahalmena duen boluntarioari dagokion dokumentu publikoa. Nahitaezko inskripzioaren kasuan, ahalordearen originala edo kopia kautotua aurkeztu behar du eskatzaileak, dagokion erregistro publikoko ziguiluak dituela.

3.1.3.3 Identifikazio-elementuak egiaztatzea

Erregistro Entitateak egiaztatu egin behar du aurreko atalean aipatutako dokumentazioa, eta idatzizko dokumentuen bidez adierazi beharko du egiaztapena egin dela.

Zehazki, aurreko atalean aipatutako inskribatzeko ahalordeen iritsiera eta indarraldia egiaztatzeko, berriz, bidezko kontsultak egingo dira Erregistro Publikoetan.



3.1.3.4 Norberak noiz aurkeztu behar duen

Eskatzailearen identifikazioa eta egiaztapena egiteko, pertsona horiek Erregistro Entitatera aurkeztu behar dute. Idatziz jaso behar da aurkezpenaren berri.

Beheko kasuetan ez da beharrezkoa izango bertaratzea:

- Ziurtagiria luzatzeko eskaeraren sinadura notario aurrean legitimatu bada,
- edo sinadura elektronikoari buruzko Legearen 13.4. artikuluan aintzat hartzen diren kasuetan. Haatik, kautotzeaz bestelako ondorioetarako – ziurtagiriaren emate segurua bermatzeko esate baterako– jaulkitze-prozeduran eskatzailea bera bertaratzea eska daitekeenean nahitaez bertaratu beharko da.

3.2 Ezeztatzeko, eteteko edo berraktibatzeako eskaera kautotzea

3.2.1 Ezeztatze-eskaerak

Ziurtagiria ezeztatu nahi duenak erregistro-entitate batera joan eta:

- bere burua identifikatu behar du, pertsona fisikoen identitatea kautotzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztuz (ikus 3.1.9.2. atala).
- horrez gain, justifikatu egin behar du ezeztatzeko eskaera, ziurtagiriaren baliogabetzea eragiten duen zergatia justifikatzeko behar den dokumentua aurkeztuz, hala behar izanez gero.

IZENPEko administratzaileek eta erregistro-entitateek baimena dute azken entitateko harpidedun-ziurtagirien ezeztapena eskatzeko.

Sarbide-kontrolaren bidez kautotzen da administratzaileen nortasuna, SSLa eta bezero-kautotzea erabiliz, ezeztatzeko edo eteteko jarduerak baimendu aurretik.

3.2.2 Eteteko eskaerak

Telefonoz (902 542 542 telefono-zenbakian) eskatu ahal du etetea gakoan edukitzaileak, bere burua identifikatuz eta telefono bidezko identifikaziorako pasahitza emanez, edo eskatzailearen identifikaziorako IZENPEk egokitzen jotzen dituen datuak emanez.

3.2.3 Ziurtagiria berraktibatzeako eskaerak

Berraktibatzeako eskaerei dagokienez, eskatzaileak:



- harpideduna izan behar du
- edo, hala badagokio, aurretik ziurtagiria eteteko eskaera egin duen gakoan edukitzailea.

Erregistro-entitate batean aurkeztu eta bere burua identifikatu behar du gakoan edukitzaileak, pertsona fisikoen identitatea kautotzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztuz (ikus 3.1.9.2. atala).



4 Eskakizun operatiboak

4.1 Ziurtagiria eskatzea

Eskatzaileak ziurtagiriaren [eskaera-inprimakia](#) bete beharko du, eta IZENPEk tramitatu dezan aurkeztu, honako bi bide hauen bidez:

- Telematika bidez: <http://www.izenpe.com> web helbidean dute interesatuek eskaera-inprimakia. Hori bete eta telematika bidez bidali behar dute erregistro-entitateara, honek aurrerregistro gisa biltegira dezan.
- (*) Aurrerregistroa egin eta hilabetea igaro ondoren eskatzaileak ez badu bete ziurtagiriaren eskaera erregistro-entitatearen bulegoetako batean, ezabatu egingo dira haren datuak aurrerregistrotik.
- edo Bulegoan bertan: <http://www.izenpe.com> webgunean zerrendaturik azaltzen diren erregistro-bulegoetakoren batera jo eta hantxe bete dezake eskatzaileak ziurtagiri-eskaera.

Entitatearen ziurtagiria software-euskarrian igortzen deneko kasuetan, gakoan edukitzaileak bi gako sortu beharko ditu zerbitzarian bertan eta IZENPEri helarazi beharko dio gako publikoa, eskaera-inprimakiarekin batera.

4.1.1 Eskatzailearen identitatea ziurtatzea

Identifikazio-elementuak

Eskatzaileak erregistro-erakundera joan beharko du, eta ondorengo dokumentazioaren jatorrizkoak edo benetako kopia aurkeztu:

- a. NANA edo pasaporte, estatuko herritarra bada.
- b. Atzerriko herritarra bada:
 - I. Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den estaturen bateko hiritarra bada, AIZ eta identitatea egiaztatu ahal izateko indarrean dagoen identitate-agiri bat eskatu ahal izango da.
 - II. Europar Batasunaz kanpoko atzerritarra bada, egoitza-txartela eskatu ahal izango da.

Ez da zertan erregistro-entitateara bertaratu beharrik izango, honako kasu hauetan:

- ziurtagiria jaulkitzeko eskaerako eskatzailearen [sinadura notarioaren aurrean legitimatu bada](#).
- edo sinadura elektronikoari buruzko Legearen 13.4. artikuluan aintzat hartzen diren kasuetan. Haatik, kautotzeaz bestelako ondorioetarako –



ziurtagiriaren emate segurua bermatzeko esate baterako– jaulkitze-prozeduran eskatzailea bera bertaratzea eska daitekeenean nahitaez bertaratu beharko da.

Erregistro-erakundeak eskatzailearen identitatea egiaztatzeak akta egingo du.

4.1.1.1 Erakunde baten nortasuna kautotzea

Pertsona juridikoa behar bezala eratuta dagoela eta eskatzaileak behar besteko ahalmena duela egiaztatzeak agiria

Ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da, erregistro-erakundeak egiaztatu ditzan:

1 Pertsona juridikoa behar bezala eratuta dagoela egiaztatzeak dokumentazioa

- Entitatearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).
- Merkataritzako sozietateek eta Merkataritzako Erregistroan ezinbestean izena eman behar duten gainerako pertsona juridikoen Merkataritzako Erregistroko egiaztagiria original edo kopia kautotzarekin ziurtatuko dute behar bezala eratuta daudela. Egiaztagiria hori eratze-datuen eta nortasun juridikoen ingurukoa izango da.
- Elkarte, Fundazio eta Kooperatibek, aldiz, behar bezala eratuta daudela ziurtatzeko, inskribatuta dauden erregistro publikoko jatorrizko ziurtagiria (eraketari buruzkoa) edo kopia kautotua aurkeztu beharko dute.
- Sozietate zibilek eta gainerako pertsona juridikoen, eratzea egiaztatzen duen frogagiria publikoaren jatorrizko dokumentua edo kopia kautotua emango dute.

2 Eskatzaileak behar besteko ahalmena baduela egiaztatzen duen dokumentazioa

Ziurtagiri elektronikoa eskatzeko behar besteko ahalmena duela egiaztatzen duen agiria. Xede horretarako,

- Legezko administratzaile eta ordezkariak gain,
- horretarako behar besteko ahalmena izango dute borondatezko ordezkariak, berariazko ahalmena, argi eta garbi zehaztutakoa eta berariaz ziurtagiri elektronikoa eskatzeko prestatutakoa, eman zaienean, pertsona juridikoen izenean eta berorren ordezkari gisa.

Ziurtagiriaren eskatzaileari honako dokumentazioa eskatuko zaio:

- Erregistroan izena eman behar duen pertsona juridiko baten legezko administratzailea edo ordezkaria bada, izendapenaren eta karguaren indarraldiaren inguruan dagokion erregistroak egindako egiaztagiria jatorrizko dokumentua edo kopia kautotua. Egiaztagiria horrek ziurtagiria



eskatzeko dataren aurreko hamabost egunetan egindakoa izan beharko du, gehienez.

- Eskatzailea borondatezko ordezkaria bada, ziurtagiri elektronikoa eskatzeko klausula berezia duen notario-ahalordearen jatorrizko dokumentua edo kopia kautotua.

Erregistro-erakundeak eskatzaile ahaldunak aurkeztutako agiriak egiaztatzeko akta egingo du.

4.2 Ziurtagiria jaulkitzea

Erregistro-erakundeak eskatzailearen identitatea egiaztatu ostean, erakundeak ziurtagiria jaulkitzeko eskaera sinatu beharko du eta, horrela, [harpidedunaren kontratua](#) onartuko da.

4.3 Ziurtagiria ematea

Erregistro-erakundeak emango dio eskatzaileari ziurtagiria, eta eskatzaileak ziurtagiria jasotzeko honako modu hauen artean aukeratu ahal izango du:

1 Txartel kriptografikoan jaulkitako ziurtagiria

Ziurtagiria txartel kriptografikoan jaulki bada, eskatzaileak honako bi aukera hauek izango ditu:

1. Ziurtagiria jaulkitzeko unean ematea PINa eta PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) eta telefono bidez identifikatzeko pasahitza adieraziko duen orria eta une horretan ematea ziurtagiria [erabiltzeko baldintzen](#) berri. Une horretan eskatzaileak [entrega- eta onarpen-orria](#) sinatu beharko du.
2. Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran zehaztutako posta-helbidean entregatzea zuzenean eskatzaileari. Eskatzaileak entrega- eta onarpen-orria gehienez ere hilabeteko epean itzuli beharko du sinatuta IZENPERa. Hala ez bada, ziurtagiria ezeztatuko da.

Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran adierazitako eskatzailearen posta-helbidera bidaltzea PINa eta PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) eta telefono bidez identifikatzeko pasahitza adieraziko duen orria, eta bertan ematea ziurtagiria erabiltzeko baldintzen berri.

2 Software euskarrian jaulkitako ziurtagiria

Ziurtagiria software euskarrian jaulkitzen bada, IZENPEk emango dio eskatzaileari ziurtagiria eta berori erabiltzeko baldintzen berri.



Eskatzaileak [entrega- eta onarpen-orrria](#) gehienez ere hilabeteko epean itzuli beharko du sinatuta IZENPEra. Hala ez bada, ziurtagiria ezeztatuko da.

4.4 Ziurtagiriak etetea

Gakoen edukitzaileak edozein unetan eskatu ahal izango du ziurtagiria eteteko, bereziki ziurtagiria galdu edo lapurtuz gero. Horretarako, 902 542 542 telefono-zenbakira deitu beharko du eta bertan honakoak eman beharko ditu identifikatzeko:

- Telefono bidezko identifikaziorako pasahitza, edo eskatzailearen identifikaziorako IZENPEk egokitzat jotzen dituen datuak.
- Eskatzailearen identitatea ziurtatzeko beharrezkoak diren identifikazio-elementuak (ikus 4.1.1. *Eskatzailearen identitatea ziurtatzea* atala).
- Entitatearen IFK.

4.4.1 Ziurtagiria etetea eskatzen duen erakundea

Ziurtagiria honako hauek eten dezakete:

- Gakoen edukitzaileak.
- Erregistro Entitateak.

4.4.2 Etenaren gehienezko epea

Etenaren gehienezko epea hamabost egun naturalekoa izango da, gakoen edukitzaileak eskatzen duenetik hasita.

Epe horren barruan gakoen edukitzaileak ziurtagiria berraktibatu nahi duela baieztatu beharko du, horretarako aurreikusitako baldintzetan.

Epe hori igaro eta gakoen edukitzaileak ziurtagiria berraktibatu nahi duela baieztatzen ez badu, ziurtagiria ezeztatu egingo da.

4.5 Ziurtagiriak ezeztatzea

Ziurtagiria ezeztatzeko eskatu nahi duenak erregistro-entitatearen bulegoetakoren batera hurbildu beharko du. Bertan, identitatea ziurtatuko duen dokumentuaren bidez (ikus 4.1.1. *Eskatzailearen identitatea ziurtatzea* atala) bere burua identifikatu ostean, ziurtagiria [ezeztatzeko eskaera](#) bete beharko du. Horretarako, beharrezkoa balitz, ezeztatzeko arrazoia egiaztatzen duen agiria entregatu beharko luke.

Ezeztatzeko arrazoiak eta ezeztatzea eska dezaketenek bete beharreko baldintzak Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke.



4.6 Berraktibatzea

Gakoen edukitzaileak 15 egun naturaleko epea izango du ziurtagiriak berraktibatzeke, berori eteteko eskaera egiten duenetik hasita. Epe hori igaro ondoren ziurtagiria ezeztatu egin dela ulertuko da.

Gakoen edukitzaileak erregistro-entitate batera hurbildu beharko du ziurtagiria berraktibatzeke. Bertan, identitatea ziurtatuko duen dokumentuaren bidez (ikus 4.1.1. *Eskatzailearen identitatea ziurtatzea* atala) bere burua identifikatu ostean, [berraktibatzeke eskaera](#) entregatu beharko du, behar bezala beteta.

4.7 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria berritzeko (ezeztatu egin delako edo iraungi egin delako), harpidedunak ziurtagiri berria eskatu beharko du, ziurtagiriak jaulkitzeko finkatutako prozedurari jarraiki.



5 Ziurtagirien profilak eta ezeztatutako ziurtagirien zerrendaren profilak

5.1 Entitatearen ziurtagiriaren profila (txartela)

Erabilerak: Sinadura, SSL

Eremua	Edukia
1. X.509v1 Field	
1.1. Bertsioa	v3
1.2. Serial Number	CA jaulkitzaileak automatikoki esleitutakoa
1.3. Signature Algorithm	SHA-1 RSA sinadurarekin
1.4. Signature Value	Sinadura kodetua bit-katearekin
1.5. Issuer Distinguished Name	
1.5.1. Country (C)	Espainia
1.5.2. Locality	Mediterraneoaren hiribidea, 3 – 01010, Vitoria-Gasteiz
1.5.3. Organization (O)	IZENPE SA-IFK A-01337260 – RMerc. Vitoria-Gasteiz T1055 F62 S8
1.5.4. Organizational Unit (OU)	IZZ Ziurtagiri Publikoa - Certificado publico SCI
1.5.5. Common Name (CN)	Herritar eta erakundeen CA - CA de ciudadanos y entidades
1.5.6. EmailAddress	info@izenpe.com
1.6. Validity	
1.6.1. Not Before	Ziurtagiriaren iraunaldiaren hasiera-data
1.6.2. Not After	Ziurtagiriaren iraunaldiaren amaiera-data
1.7. Subject	



Eremua	Edukia
1.7.1. countryname	"ES"
1.7.2. Organization (O)	Entitatearen baltzu-izen erregistratua.
1.7.3. Organizational Unit (OU)	Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido
1.7.4. Organizational Unit (OU)	<u>Entitatearen ziurtagiria</u> - Certificado de entidad
1.7.5. Organizational Unit (OU)	Condiciones de uso en www.izenpe.com nola erabili jakiteko
1.1.1. dnQualifier	Entitatearen IFK (* formatua : -IFK Lnnnnnnnn)
1.7.6. Common Name (CN)	Baltzu-izena
1.7.7. givenName	Arduradunaren izena (NANan ageri den bezala)
1.7.8. surName	Arduradunaren abizenak (NANan ageri diren bezala)
1.7.9. serialNumber	Entitate juridikoaren IFZ edo IFK
1.7.10. 1.3.6.1.4.1.18838.1.1	Arduradunaren IFZ edo AIZ
1.8. Subject Public Key Info	1024-Bit gako publikoa, RFC2459 & PKCS#1ren arabera kodetua
2. X.509v3 Extensions	
2.1. Authority Key Identifier	
2.1.1. Key Identifier	Jaulkitzailearen gako publikoaren identifikatzailea.
2.1.2. AuthorityCertIssuer	keyIdentifier-en identifikatutako gakoari dagokion CAren izena
2.1.3. AuthorityCertSerialNumber	CAren ziurtagiriaren serie-zenbakia
2.2. Subject Key Identifier	
2.2.1. Key Identifier	Harpidedunaren gako publikoaren identifikatzailea.
2.3. Key Usage	



Eremua	Edukia
2.3.1. Digital Signature	Hautatua "1"
2.3.2. Non Repudiation	Ez-hautatua "0"
2.3.3. Key Encipherment	Hautatua "1"
2.3.4. Data Encipherment	Ez-hautatua "0"
2.3.5. Key Agreement	Ez-hautatua "0"
2.3.6. Key Certificate Signature	Ez-hautatua "0"
2.3.7. CRL Signature	Ez-hautatua "0"
2.4. Qualified Certificate Statements	
2.4.1. qCStatement OID	0.4.0.1862.1
2.5. Certificate Policies	
2.5.1. Policy Identifier	1.3.6.1.4.1.14777.2.7
2.5.2. Policy Qualifier ID	
2.5.2.1. CPS Pointer	http://www.izenpe.com/rpaentidad
2.5.2.2. User Notice	Bermeen mugak ezagutzeko www.izenpe.com Ziurtagirian konfiantza izan aurretik kontratua irakurri Limitaciones de garantias en www.izenpe.com Consulte el contrato antes de confiar en el certificado
2.6. Subject Alternate Names	
2.6.1. rfc822Name	
2.7. Issuer Alternative Name	
2.7.1. dNSName	http://www.izenpe.com
2.8. Extended Key Usage	
2.8.1. clientAuth	1.3.6.1.5.5.7.3.2



Eremua	Edukia
2.9. cRLDistributionPoint	
2.9.1. distributionPoint	http://crl.izenpe.com/cgi-bin/crl
2.10. NetscapeCertType	SSL client
2.11. Authority Information Access	
2.11.1. Access Description	
2.11.1.1. Access Method	1.3.6.1.5.5.7.1.48.1
2.11.1.2. accessLocation	http://ocsp.izenpe.com:8094
2.11.1.3.	



5.2 Entitatearen ziurtagiriaren profila (zerbitzaria)

Erabilerak: Sinadura, SSL

Eremua	Edukia
3. X.509v1 Field	
3.1. Bertsioa	v3
3.2. Serial Number	CA jaulkitzaileak automatikoki esleitutakoa
3.3. Signature Algorithm	SHA-1 RSA sinadurarekin
3.4. Signature Value	Sinadura kodetua bit-katearekin
3.5. Issuer Distinguished Name	
3.5.1. Country (C)	Espainia
3.5.2. Locality	Mediterraneoaren hiribidea, 3 – 01010, Vitoria-Gasteiz
3.5.3. Organization (O)	IZENPE SA-IFK A-01337260 – RMerc. Vitoria-Gasteiz T1055 F62 S8
3.5.4. Organizational Unit (OU)	IZZ Ziurtagiri Publikoa - Certificado publico SCI
3.5.5. Common Name (CN)	Herritar eta erakundeen CA - CA de ciudadanos y entidades
3.5.6. EmailAddress	info@izenpe.com
3.6. Validity	
3.6.1. Not Before	Ziurtagiriaren iraunaldiaren hasiera-data
3.6.2. Not After	Ziurtagiriaren iraunaldiaren amaiera-data
3.7. Subject	
3.7.1. countryname	"ES"
3.7.2. Organization (O)	Entitatearen baltzu-izen erregistratua.



Eremua	Edukia
3.7.3. Organizational Unit (OU)	Condiciones de uso en www.izenpe.com nola erabili jakiteko
3.7.4. Organizational Unit (OU)	<u>Entitatearen ziurtagiria</u> - Certificado de entidad
3.7.5. Organizational Unit (OU)	Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido
1.1.2. dnQualifier	Entitatearen IFK (* formatua : -IFK Lnnnnnnnn
3.7.6. Common Name (CN)	Baltzu-izena
3.7.7. givenName	Arduradunaren izena (NANan ageri den bezala)
3.7.8. surName	Arduradunaren abizenak (NANan ageri diren bezala)
3.7.9. serialNumber	Entitate juridikoaren IFZ edo IFK
3.7.10. 1.3.6.1.4.1.18838.1.1	Arduradunaren IFZ edo AIZ
3.8. Subject Public Key Info	1024-Bit gako publikoa, RFC2459 & PKCS#1ren arabera kodetua
4. X.509v3 Extensions	
4.1. Authority Key Identifier	
4.1.1. Key Identifier	Jaulkitzailearen gako publikoaren identifikatzailea.
4.1.2. AuthorityCertIssuer	keyIdentifier-en identifikatutako gakoari dagokion CAren izena
4.1.3. AuthorityCertSerialNumber	CAren ziurtagiriaren serie-zenbakia
4.2. Subject Key Identifier	
4.2.1. Key Identifier	Harpidedunaren gako publikoaren identifikatzailea.
4.3. Key Usage	
4.3.1. Digital Signature	Hautatua "1"
4.3.2. Non Repudiation	Ez-hautatua "0"



Eremua	Edukia
4.3.3. Key Encipherment	Hautatua "1"
4.3.4. Data Encipherment	Hautatua "1"
4.3.5. Key Agreement	Ez-hautatua "0"
4.3.6. Key Certificate Signature	Ez-hautatua "0"
4.3.7. CRL Signature	Ez-hautatua "0"
4.4. Qualified Certificate Statements	
4.4.1. qCStatement OID	0.4.0.1862.1
4.5. Certificate Policies	
4.5.1. Policy Identifier	1.3.6.1.4.1.14777.2.8
4.5.2. Policy Qualifier ID	
4.5.2.1. CPS Pointer	http://www.izenpe.com/rpaentidadser
4.5.2.2. User Notice	Bermeen mugak ezagutzeko www.izenpe.com Ziurtagirian konfiantza izan aurretik kontratua irakurri Limitaciones de garantias en www.izenpe.com Consulte el contrato antes de confiar en el HYPERLINK http://www.izenpe.com ;
4.6. Issuer Alternative Name	
4.6.1. dNSName	http://www.izenpe.com
4.7. Extended Key Usage	
4.7.1. emailProtection	1.3.6.1.5.5.7.3.4
4.7.2. clientAuth	1.3.6.1.5.5.7.3.2
4.8. cRLDistributionPoint	
4.8.1. distributionPoint	http://crl.izenpe.com/cgi-bin/crl
4.9. NetscapeCertType	SMIME



Eremua	Edukia
4.10. Authority Information Access	
4.10.1. Access Description	
4.10.1.1. Access Method	1.3.6.1.5.5.7.1.48.1
4.10.1.2. accessLocation	http://ocsp.izenpe.com:8094
4.10.1.3.	